

BERNARDO ATXAGA EUSKALTZAINDIAN SARTZEA

*Andres Urrutia Badiola,
euskaltzainburua*

Asteasuko alkatea,
Euskaltzainkideak,
Asteasuarrak,
Jaun-andreok,

Egun on guztioi!

Euskaltzaindia gaur Asteasura dator, zuen herrikide den Jose Irazuren sarrera-ekitaldia egitera.

Hona etortzeko deian, guztiok irakurri ahal izan dugu Jose Irazu izen-abizenaren ondoan, bestelakoa, beharbada guretzat ezagunagoa edota gure gizartean barreiatuagoa. Honetara dio horrek: Bernardo Atxaga.

Nor, ordea, gaur euskaltzain oso bere burua jantziko duena? Bata ala bestea? Esan dezadan argi eta garbi bi-biok datozela Euskaltzaindira, bitzuok baitira bat euskal letretan, gizabanakoa bera eta haren heteronimoa.

Hartara, Euskaltzaindiak bereganatzen du, takada batez, bikote harrigarria, pertsona berak bere baitan daramana. Jose Irazu –noizbait, Bilbo aldean *Joseba* izan bazen ere, batik bat ikaskideen ahotan–, asteasuarra, familia jakinekkoa, herrikidea, biografia baten jabea. Aldi berean, Bernardo Atxaga, aurrekoaren bizimodua, gogoeta, ideiak eta eitea barruratu ez ezik, literaturaren mailuaren bidez moldatuak eta euskal letretan emanak dituen, guztion gozamenarako eta euskal kulturaren aitzinamendurako.

Irazu eta Atxaga, Atxaga eta Irazu, ispiluaren alde desberdinak izanik ere, ispilu bera osatzen dute, eta irakurleak aukera du horren barruan ispiluaren bi aldeak eta ikuspegiak batera ikusteko, errealitatea eta horren isla, modu askotara kanporatuak baina batera zizelkatuak.

Ispilu horri begira nagoen honetan, ispilu horrek alde itsurik ez duela ohartu naiz, irudiak alde batera eta bestera ikusten baitituz. Batean aurkitzen dituz Jose Irazu semea, Jose Irazu senarra, Jose Irazu aita, Jose Irazu adiskide

eta laguna, eta, orobat, haren inguruan diren emaztea, alabak, gurasoak, anai-arrebak, senideak, adiskideak... Horretan datza gizona, bere errealitate historiko eta zehatzean kokatua, bere biografiaren datu esanguratsuetan hartua eta hertsatua.

Ispiluaren beste aldean, ostera, Bernardo Atxaga dut zain, bere literatura munduarekin, bere irudiekin, bere metaforekin, euskal letren sarea ehotzen eta lotzen, autore baten heldutasunaren ezaugarri eta seinale.

Hainbatez, Euskal Akademiara datoz gaur Irazu eta Atxaga, Asteasu eta Bilbo, Gipuzkoa eta Euskal Herria, euskara eta literatura, hizkuntza eta sorkuntza. Asteasukoa da horien eramaile, Asteasutik euskal letretara beste baturek emaitzarik onenak eman zizkioten bezalaxe.

Ezin isilpean utz, soka luze horretan, Juan Bautista Agirre eta Antonio Arrue. Ezin, inolaz ere, bigarrenaren aholkua eta iritzia baztertu:

guk gure bizitza guzian, bai euskerazko bai erderazko, azal, estalki edo jan-ziera apañ eta ongi ornitutako literatura-lanen zale amorratuak izan gera beti eta beti. Baña, azalak, estalkiak eta janzierak ezezik, mamiak, muñak eta barrunbeak ere, ba-dutela ajola, derizkiogu. Ta ez nolanaikoa.

Halakoxea da, izan ere, gure sarrera-hitzaldiaren egilea. Literatur unibertso sendo –azal eta mami– baten asmatzailea. Egin diezaiogun, hortaz, berari ere ongiatorria, ia-ia mende bi lehenago Juan Bautista Agirrek idatzi bezalaxe, eguantzari edo egunsentiko argiari Groenlandian egiten zioten moduan, alegia, *kontentu gelditzeko eguantzari musikaz ongi etorri egitea*. Izatez, musikarik jatorrena eta preziatuena da haren ahotik gaur entzungo duguna, hain zuzen ere, hitzaren musika, literaturaren doinua.

Buka dezadan nire agurra. Artean, Euskaltzaindiaren izenean, mila esker asteasuarroi, eta gainerakoei ere, zuen harrera abegikorrenarengatik, eta egin dezagun aurrera gaurko egitarauarekin. Esan dut.